




Ilteroko aldizkingi edergariduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—: || VI Urtea || 1924'ko Neugila || 72 Zenbakia || :—:

Napar argi ta Kaputxino Misiolari



AUNAREN Mirabe Adoain'dar Esteban Aita Agurgafia 1808-
'an (mila zortzireun eta zortzian) jaio zan: Napar argi, Ka-
putxino aipagafi ta Misiolari afigafia izanzan au, Adoain
zaion efitxoan jaiorik, berartan bizitu zan ogei urtetaraño.

Layean ari zan tokitik, layak bota-ta Zintruenigo'ko
Kaputxinoen orduko etxera jo zuan, gure soñeko santua

jantzi naiez.

Ori jantzi-ta boskafen urtean Mezaz sagaratu zuan Andriani Iruñak'o
Gotzaiak.

Laxter ezagutzera en:an zuan Jaunak, gauza aundietarako zaukala ger-
taera afigaritzat iduki zanaz. Iruña'n urkatzeko zorian zegoan gaizkile bat
ezin zuten aitortzera jafi-erazi. Esteban Aitak arengana joanik esan zion:
bere onetan Jauna pakatzera zijoala ta sorbaldak agirian, asi zan bere burua
kate printzadunez zanpatzen, odoletan jartzeraño. Gaizkilea bere gaiztake-
riz damutu zan eta Esteban Aitari aitortu zitzaion.

1839'an España'tik Prale ta Monjak botatzean bere soñekoa ez uztea-
gatik aufena Itali'ra jo zuan eta gero Prantzi'ra. Ufengo urtean abiatzen zan
Marsella'tik Venezuela'ko misioetara beste 29 Kaputxinoekin.

¡Venezuela'ko Apure izena duan alderdi osasunkaitz artan eraman zituenak! 1843'eko Epail (Martxoan) iritxi zan lantegiaren erdira. Inditafai zeru-bidea erakusteko zer gose-egafi, ibilera txar eta lan gogofak eraman zituen ez dira bi itzetan aipatzeko. Urte ta erdiko lan geiegiz eta toki txafaz osasuna galdurik utzi bear izan zuan aldi bateko.

Sei urte egin zituan or Jaunaren artegira amaika ardi galdu itzuliz. Ortik Cuba'ra joanik 5 urte ta lau ilabetez (bederatziafenik aipatu gabe) 93 Misio eman zituan. Larogei ta bi milari Jauna eman zien, bost mila irureun eta zazpi ezkontza ondu zituan.

Andik Guatemala'ra joan zan eta emen lenengo iru urtetan bakafik 51 misio ta 4 mila ezkontza egin zituan eta 69 milari Jauna eman zien eta lan oni sei urtez jafai zion. Aren itzaldiei ta lanai eskefak iru naskaldi izugafi galarazi ziran Guatemala ta San Salvador'en.

Lau efialde oietan 30 urte egin zituan, iñoiz bere misio taldeak utzi gabe. Bere misio geienak 15 eta ogei egunezkoak izaten ziran. Bere legofeko ibilerarik geienak oñez egiten zituan.

1868'an America-erdiko kaputxinoen Ordezkarri Buruenetako autatu zuten eta lau urteren buruan nastzaleak bayoneta afean arturik atera zuten.

Gure efiak ere misiolari santu afean beafa ba-zuan garai artan eta ufengo urtearen Martxoan Bayona'ra iritxirik, berak zionaz, euskera franko aztu zitzaiolako ori ikasten sayatu zan ilabete batzuz. Gero Azpafen'en eman zituen ejerizioak, eta Bayona'n misioa euskeraz. Ori zen 1874'ean; ufengo urtean Ezpeleta'n. Biafritz'en, Ustaritz eta Biriatu'n, Zugafamurdi'n, Ufuña'n eta Bera'n egin zituan misioak euskeraz. Azkenean urte berean Bera'ko Artieroai eta Lastaola'n karlistei egin zien misioa.

Ufengo urtean Gipuzkoa bafena ibili zan itzaldiak egiten eta Tolosa'n irufen bat egin zuan. Gero Bayona'ko katedralean 11 itzaldi egin zituan, ondorean Napafo'ko Nabazkötze'n eta gero Ufaul goiti'ko Santa Fe'n, Artieda'n, Arboniez, Irunbefi'n, Artajona'n eta Untz'ko San Martin'en.

1877'an goratu zituan Antequera ta San Lucar de Barrameda'ko komentua eta bi urte gafeneko España guztiko kaputxinoen Buru egiñik Iruña'ko komentua befitu zuan.

1880 Ufilaren 7'an santuen eriotza gozoa San Lucar'en egin zuan. 73 urte zituan, 53 kaputxinoen soñekoa jantzirik eta 38 urte Misiolari afigafi egiñik zebilela.

Bere bizitzan afe aldetik gauza ezin jakiñen befia ba-zuala ta Jaunak bere bidez beste afigafizko gauza batzuek egiten zituala aski jakiña da ta aldaretara Misiolari au jasotzeko lana azkar egiten asiak dira Iruña'n.

Agofaren 25'ean egin zan, Gotzaitegian (Obispoaren jauregian), ori Zoriondu eta Santu dala Elizak esaterako egiten dan auziaren asierako bilera, Obispo jauna buru dala. Emengo lanak auferatuak dira.

Misiolari aundi au aldaretara jasotzeko lan guzien Eragile-Ordeko Lizar'dar Gumersindo Aita autatu zuten Efomatik. Ez alpefik. Lan edefik egiten du gerozko ontan.

Iruña'ko auzi ori astean Adoaindafak eta bere balekoak bi jai eder egin dituzte, Jaunari beren efitafaren gorapena eskatuz. Lenengoa Santa Fe'n, Ufilaren 6'ean, eta 7'an bigafena, Adoain'en. Bi toki oieta = Misiolari afiga-

fi onen aintzat oroitafi bana jaso diote, ibar (baleko) Apaizteria, Udala (Ayuntamiento) ta efi guzietakoak bildurik. Jai oietan itzaldiak egin zituztenen argazkia (efetratoa) gero dakuskezute.

Adoain'dar Esteban Aita zenaren bitartez iritxitako zenbait mesede entzun ditugu. Baño oraindik mirari aundiagoen bat itxoiten degu. Ea zuetako norbaiti egin nai ote dion; eskatu Jaunari euskaldunak. Eta alakorik gertatzen zaizuenean guri gaztigatu (mandatua bialdu) aŕen. Ea euskaldun eta nappar bat geiago ikusten degun aldaretan. ¡Jaunak bekigu!

Ar'tar A. O. M, Cap.



Adoain'dar Esteban Aita Agurgaria

Sortzez Garbiari

(*Curremus in odorem unguentorum tuorum*)
Cant. Cant.

Nere begi goibelduak
zuzendurik zugana,
¡oi zein garbi, zein edefa
zakustan ene Ama!
Ezta zuregan ogenik,
gutziz garbia zera,
zeru-goiko izar argi,
Ama laztan, maitea,

Eguzki gartsuz jantzirik
erakusten zatzaigu;
oñazpian ilargia
apal-apalik dezu;
eta izar distiratsuak
dagitzute inguru.
Guk, luftar erukariok,
gure Ama zaitugu.

Jaungoikoa Bera jetxi
zitzaitzun biotzera;
bertan, loretegian lez,
jafi bizilekua:
biotz txukuna bai-dezu,
biotz maitagafia,
Jainkoaren diñakoa,
biotz garbi-garbia.

Izaki orok zaituzte
egun, Ama, goratzen;
negarrezko ibafetik
dagokizu maitatzen
gizona, zure edefmenaz
dalarik liluratzen,
gutziz garbia zerala
eten gabe kantatzen.


Gero ere begietan
malkoak ditudala,
arpegia makurtzen dei
nere biotz-barnera.
¡Oi bai ilun dagoela,
zurbil eta abaildua,
ogenak kutsatu-eta
osoki ondatur!

Lufeko ur loiez-loi zait
ibili lefatur,
edan t'edan, asetzeko
zorion-egafia.
Ur kutsatuak ziren-ta
gelditu zait erdi ila,
ain edefa, ta ain txukuna
Urtzik egin zidana....

Goiko eskafez nai nuke
edeftzea biotza;
ofegaitik erletxo
lozez-lore bezela
zure birtuten ondoren
nabilkizu egaka,
Birjin edef, zoragafi,
Ama gozo, laztana.

Efuki zakizkit ¡otoi!
Ama efukafia;
zure aufean naukazu
otoitz beraz eskeka,
ene biotza apaintzeko
zurearen antzera.
¡Oi bai dala geldituko
ziñez edef-edefa!

Yure'ta' Julian A. O. E. Cap.






Bigaren Agindua. Zin egitea

II

Jurabis... in veritate, et in judicio et in justitia.
(Jerem^o IV:12.)
Zin^o legingo dezu^o egiz, eta bearez eta zuzentasunez.



IGAREN aginduak birao (blasfemiaz) gañera debekatzen al du beste zerpait ere?

—Bai, jauna, bigaren Aginduak biraoaz gañera debekatzen du *egia gabe, ziilegi eztan gauzaz eta premirik-gabe zin edo juramentu egitea.*

G. Zin egitea zer da?

E. Esaten degunaren eta inñori agintzen diogunaren testigutzat Jaungoikoa jartzea, da zin egitea. (B. K. J.)

Dioguna egiztutzeko norpaiti deitzen zaio guk dioguna ikusi edo entzun zualako edo baita ere gu ondo ezagutzen gaitualako. Zen-

bait aldiz, ordea, dioguna egiztu dezaken gizonik ez da. Edo balitz ere, aren esana ez da naikoa guri sinisteko. Orduen toki guzietan beti dagoan eta guzien befi dakien Jaungoikoari deitzen diogu. Zertarako? Dioguna ikusle, lekuko ta testiguak bezala edo gure biotzeko asmoen befi duana dan ezkerro egiztatu dezan gure esana.

Egiz ari gei alako testigutzat deitzen zaio, ba, Jaungoikoari ta ori da egia egiztatzeko eman ditekene indargafirik (segurantzirik) aundiena, Pablo santuak dionez (Hebr. VI-16). Orduan, gure itzak Jaungoikoaren itzak bezala artzen dira.

Zenbait aldiz Jaungoiko berari deitzen zaio edo bere izena aitatzen (aipatzen) da, zin egiteko. Baño, egiaz, zin egiteko ori ezta bearezkoa.

Naikoa da Aren gauza urén edo urbilak bezala dauzkagunak, (gauza santuak) aipatzea. Batzuetan zin egiten da, ba, gurutzeaz, zeruaz, Aldareko Jaun aundiaz, Ebanjelio santuaz, fedeaz eta.

Auek aitatzean, ordea, gauza oiek ez baño Jaungoikoa artzen da testigu edo lekukotzat.

Eta alpefikako ziña izan ezkeroz, gauza auek aipatuz, Jaungoikoa aipatuz bezin pekatu aundia egingo litzeke.

Oara. Ez dituzu, ordea, zin edo juramentutako artu bear onako esanera auek:

Ni olako naizen bezala; Ni bizirik nagon bezala; Nik bi esku ditudan bezala; Lepoa moztu dezaidatela egia ezpadiot eta onelako esanera.

Baño bai zin egitea dala:

Jaungoikoa dan bezala; Jaungoikoak ikusten nauen bezala; Jaunak ilko al nau onela ezpalitz; Tximistak ereko al nau; Luñak iretsiko al nau egia ezba-diot eta...

Inglatefan, emakume batek, eltzari batzuek erosi zizkion gizonari esaten zion ordaindu zizkiola, ta begira zeudenai siñistarazteko, kopeta gaiztoz esan zuan: «Jaungoikoak il naza, ezpadizut ordaindu.» Ta bereala ilik erori zan. (*Merault, Insegnamenti.*)

G. Alperik zin egitea zer da?

E. Egi, bear edo zuzentasun gabe Jaungoikoa testigutzat artzea, da alpefik zin egitea. (B. K. I.)

G. ¿Zer da egi gabe zin egitea?

E. Gezurtzat daukagunari, zin egiñaz eustea, da egi gabe zin egitea. (B. K. I.)

Nor berak uste ez duana edo gezurfa siñistarazteko zin egitea da egi gabe zin egitea.

Pedro Apostoluak onela ukatu zuan Jesus, au lotu zuten gauean, zin egiñez etzuala ezagutzen ere. (Marc. XIV-70,71.)

Egi gabe zin egitea ere da esaten dan bezala dala uste izan afen, *ziñez ta egiz ala ote dan jukin gabe*, ala dala zin edo juramentupean esaten danean.

Egi gabe zin egitea da nor berak ikusi gabea ikusi duala ta entzun gabea entzun duala, zin egiñez siñistarazi nai diranean.

Egi gabe zin egitea da betetzeko edo egiteko asmorik ez dana, zin egiñez agintzen denean.

Neskatx askori ofelako itzak ematen dizkiote mutil askok eta petardo edefak ere bai, zin egiñaz emandako itza betetzeko asmorik beñere izan gabe.

—Eta nolako pekatua egiten du egi gabe edo diona egia ote dan zalantzan (dudan) zin egiten duanak?

—Egi gabe edo egia ote dan zalantzan zin egiten duanak pekatu lafia egiten du, naiz zinpean diona gauza ariña izan. (Uriz Labairu).

Beraz zin egitean esaten dana edo agintzen dana gauza zirtziña edo gauza asko esan nai duana izan, pekatua berdin da, egi gabe edo egiaren zalantzan zin egin ezkerok; beti pekatu lafia edo astuna.

Naiz esan txori bat egaka ikusi dezula edo gizon bat iltzen ari zirala ikusi dezula; gezuñak ba-dira biak, biakin pekatu lafia egingo zenduke, zin egin ezkerro.

G. Zer da bear gabe zin egitea?

E. Ezerezkeriz edo ajola gutxiko zerbaitengatik Jaungoikoa testigutzat ekartzea, da beařík gabe zin egitea. (B. K. I.)

Galde oni X-gafen Pio'k erantzuten dio:

Beařík gabe zin egitea, zurtzeririk (zuurtasunik) gabe ta ondo begiratu gabe edo gauza zirtzilaz zin egitea da.

Zin egitea ain gauza lafia dalako, ez diteke nolanaí egin; ezta edozein gauzatarako ere, utsik gabe. Aufenengo kristauak barurik egiten zuten ziña ta elizan bakarík eta martireen baten gorpuzki (erlikiak) gordetzen ziran aldareen baten gañean.

¿Zer pekatu da beařík gabe zin egitea?

Beařík gabe zin egitea, pekatu ariña (txikia) da, ziña egiazkoa ta bidezkoa izan ezkerro.

Zin mota ontaz zion Jesukristo'k:

Ez iñolaz ziñik egin, ez zeruaz... ez luñaz... ez Jerusalem'ez... ezta zure buruaz ere (Mat. V-34-37).

Au zion pekatu txikia bedere gabe ezin egin dalako ta aundiak egiteko bidea emango lukelako.

Aufari gogor egin bear zaie aurtzaroan ez ditezen ortara oitu.

(bukatuko du)

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.



Erdian agiri da Markuelo'ar Pedro J., A. Esteban ařigariaren iloba; eskubian Markuelo'ar Ermenejildo Misiolariaren iloba, gañeroakoak oien etxeko, ta Aita Agurgariaren aideak



SEASKA AUÑEAN



Elduayen'dar T. A.

Eme - emeki

Se - as - ka ba - te - an

dago Jainko - a Zerutik e - to - fi zaigun Aurtxo-

a Aur po - li - ta - go - rik ez det i - ku - si

I - za - fak be - re la - dis ti - ra da - gi

Se - as - ka ba - te - an

dago Jainko - a Zerutik e - tofi zaigun Aurtxo - a

SEASKA AUREAN

1.^a Seaska batean
dago Jainkoa,
zerutik etofi
zaigun Aurtxo.

Aur politagorik
ez det ikusi;
iza fak bezela
distira dagi.

2.^a Ufrezko ileak,
ezpain zuriskak;
zeruak iduriz
urdin begiak.

Bere muxua du
loretegia,
bi masail gorjak
afosa bana.

3.^a Seaska ondoan
dago Maria,
orbanik eztuan
lili zuria.

Eresi samurak
oiuz ari da
loak artu dezan
bere Semea.

M A R T E



Ez al dezu irakurri, irakurle maite ofek, nola Dagoniñaren azke-neko egunetan eta Agofaren aurenengoetan aldizkari ta izperkariak (revista ta periadikuak) izarbel ontaz itzegiten aritu izan diran? Beste alditan baño geigo Lufaldera uferatzen zala, Ipañ-Ameriketarik eta Txiletik, Europatik eta beste Lufeko zatietatik bere tresnen bidez izaf oni begira ibili dira jakintsuak. Bere gañean biztanle edo gizonik izango ote zalako zalantzan, izarbel ontara arigabeko ufutidatz edo telegramak bialdu dituzte ta ango erantzupenen zai egon dira; Martek ordea emengo jakintsuen jakinaiez ajolik artu gabe bere bideari jañaitu dio.

Neuriak eta ufutitasuna.—Befogeitaemeretzi l'erdí miloi kilometro baño geigo ufuti dago gure lufetik izarbel au. Luf-erdi bat aundi da. Bere urteak 687 egun ditu eta bere egunak 24 ordu eta 37 minutu.

Bere gañean lauso (mantxa) ilun-urdiñafeak eta goritsu-dirdiratsuak agiri dira, Lauso oiek zeñ ote diran azaltzen eztira bat etori jakintsuak.

Lauso urdiñafe oiek itxasoak ziralakoan *itxasoak* deitu zituzten jakintsu batzuek, itxasoetara zearka dijoazen lefo urdiñ batzuek befiz *ibaiak* eta zuzenzuzen dijoazenak *istun* edo kanalak. Bañan oraingo jakintsuak eztute ofelako itxasorik eta ibairik ikusten. *Itxaso eta ibai* oiek batzuentzat zelai eta ibaf ezetasun ta narotasunez beteak izango lirake, besteentzat befiz, zelai eta ibaf legofak, urik gabeak eta zuaitz kaxkarak an emen dituztenak. Aientzat *istun* edo kanalak gizonak edo gizonen antza duten batzuek egindako egiazko kanalak dira; auentzat befiz itxurazko kanalak bakafik.

Bai aldago bizidunik bere gañean? Luf ontan bizi geranok nekez jañiko giñake an bizitzera. Bañan Jaungoikoak beste eraz antolatutako gizonak egin ditzazke eta izaf ontan jañi, mundu ontako gizonak egiteakin ezpada akitu Jaungoikoaren almena.

Bizidunik bai ote dagon ala ez, gure antzeko gizonik bai al dagon ala ez, ez-takigu eta ezdute jakintsuak ez ango ufutidatzik artu, ezta ere ufutikuskiñez an gizonik ikusi. Etorkizunean ustekabeak izango al ditugu? Jaungoikoaren aunditasuna ta ontasuna, agertzen diran baño aundiagoak agertuko al zaizkigu? Dana dala beti esango degu: «Multa abscondita sunt majora his: pauca enim vidimus operum ejus (Ecci. 43, 36).» Ezkutaturik dauden gauzak ikusten ditugunak bañon aundiagoak dira, bere egifetatik gutxi ikusi bai degu.

Oleartso A. O. M. Cap.



URTE SANTUA



ATOZEN Egubefitako lenengo *bezperetatik* urfengo urteko Egubefitako lenengo *bezperak* arte (1924-1925) Eфомako **Urte Santua** da. XI'ga-fen Pio, gure Aita Santu txit maiteak aurreko Ofilaren 29'ko bere idazkiaz ala erabaki eta iraga-ri du.

Lege Zafeko Urte santua

Sinai mendian Jaunak Moisi aginduta, Israe-l-dafak, Jainkoak emandako lufean sartu ziran ez-kerok, befogetamar urtetik befogetamar urtera *Urte santua* izan oi zuten. Urte ori «*biurpena*», «*pozkariozko urtea*» deitzen zan eta Israelgo efi guz-tietan turuta ots audiz iragari oi zan. Urte ofetan lur-lanik etzan egin bear eta lufak berez ematen zuana ere ezin ziteken bildu, egunean egunerakoa ezpazan eta edozeiñek artu ta jan zezaken; mofontzara beartuak askatu, *libre* utzi, bear ziran; zofetan ziranai beren zofak azketsi, barkatu bear zitzaizkien; eta naiz salduta naiz bestela beste baten eskuetaratutako lufak eta etxeak beren lenengo jabeai itzuli bear zitzaizkien.

Ori guztia Jaunak aginduta.

Kristauen Urte Santua

Lege zafekoaren antzera jafia da; baño gogoarekiko, *animarekiko* on-dasunak, izatezgoitiko ondasunak soñarekikoak, *gorputzarekikoak* baño askoz ere bikañagoak diranez, Lege Befiko Urte Santua Lege Zafekoa ba-ño askoz ere bikañagoa da.

Urte Santua noiztikoa da?

Agiriki dakigunez lenengo Urte Santua 1300 ga-fen urtekoa, Bonifazio VIII ga-fenak emana izan zan; baño eun-urtez lenago ere egin zala dirudi; Bonifazio VIII ga-fenak eun urtetik eun urtera egitea erabaki zuan; Klemen-te VI'ga-fenak beriz befogetamafetik befogetamafera; Urbano VI'ga-fenak, tarte ori luzeegia zala-ta, Jesukristo lur onetan bizi izan zan ogeitamairu ur-teen oroipenez, ogeitamairutik ogeitamairura egitea erabaki zuan. Geroago, 1470'ga-fen urtean, kristauen arteko beafak eskatzen zutelako, Paulo biga-fenak ogetabost urtetik ogetabost urtera egitea erabaki zuan; eta afezkero, noizik bein utzi badare, ofela egiten da.

Urte Santua zer da ta zertarako da?

Urte Santua, Pio XI ga-fenak bere aipatutako idazkian dionez, gizo-nak beren pekatuengatik *penitentzia*, oben-nekea egitaratu ta bizitza one-ra ekartzeko bide berezi bat da. *Urte Santua* elizkizun txit nagusiz asi, ja-faitu ta bukatzen dalako oitura onak befitu ta zabaltzeko beste edozein urte

baño egokiagoa da. Urte Santuan Eñomara, guztien Aitaran oñetar 1 lufalde guztietako kristauak biltzen diralarik, gizonen arteko sinismena, pakea ta naitasuna berotu, beñitu ta sendotzeko bidea da.

Urte Santuko nekazka

Urte Santuan bear bezela aitortu (*konfesatu*) ta Jauna arturik Eñomako lau Eliz-nagusietako bat ikusi ta Aita Santuak nai duanaren alde utoitz eginda nekazka osoa (*induljentzi osoa*) irabazten da.

Ikusi (*bisitatu*) bear diran Eñomako Eliz-nagusiak onako aukerak dira: Pedro Deuna, Paulo Deuna, Laterango Joan Deuna ta Andre Mari Nagusia.

Eliz-nagusi oiek eñomatafak edo Eñoman bizi diranak ogei egunez nai tarteka nai etengabe, egunean bein ikusi bear dituzte; atzerietatik Eñomartzen diranak beñiz amar egunez.

Gañera Eñomako Aitorleai (*konfessoreai*) eskeñitzak, araugetasunak (*irregularitates*), ezkontza-eragozpenak eta azketsitzeko, kentzeko ta Eliz-nagusiak ikusteko egunak gutxitzeko ta eskubidea ematen zaie.

Zer eskatzea nai ote du Aita Santuak nekaz-

ka oso ori irabazteko Eliz-nagusiak ikustean?

Aita Santuak Urte Santu onetan Jaungoikoari, batez ere, iru gauza eskatzea nai du.

Lenengoa eñien arteko pakea, bigafena kristau guztiak Jesukristoren egi azko Elizaratzea ta irugafena Lufalde Santuekiko auziak erarik onenaz erabakitzea.

Guztiok Eñomara! ..

Aita Santuak txit maiteki deitzen zaitue-ta, al dezuten guzti-guztiok Urte Santu onetan Eñomaratu zaitetze, Eliz Ama deunak eskeintzen dizuten nekazka (*induljentzi*) aundi ori irabaztera. Ofela Jesukristorekiko eta lufean bere Ordezko dan Aita Santuarekiko maitetasuna ta onginaia adieraziko dezute eta, Jainkoaren afean zuen gogoentzako (*animentzako*) eskar ugariak irabazirik, zuen sinismena ta Jaun-maitasuna beñitu ta sendotuko dira.

Ataundar Bonif. A'k O. M. Cap.

Lekarotzen 1924-XI-6'an.



“Kutun urdiña”

DRAKURI gaztetxo-maiteak, poliña da ta.

«Ama Birjiñaren 'aufian belauniko dagon mutiltxoak ezagutuko eztezute noski: nik bai ordea...

«Nere Ama maitia! Oso ta bizi, zurea naiz, eta semetxoa izanik maite zaitudalako, nere begiak, nere belafiak, nere mingaña, nere biotza eta itz batian naizen guzia gaur eskeintzen dizut.

Ama on-erukitsua! guzi-guzia zurea naizen ezkeror, gorde nazazu eta zure jabetza bezala zaitu ere bai «¡Agur Amatxo!»

Otoitz auxen esan gabe *Martin Joxe* elizatik beñere etzan ateratzen eguneroko meza entzun ondorian eta ala Ama Birjiñaren aufian begirayozue zeñen poliki belauniko ari zayon esaten:

«Nere Ama maitia!...»

Martin Joxek amar urte bete zituanian *Kutun urdiña* zer dan ikasi zuan. Ama Birjiñak eskutik txintxilik zeukana, bai, ikusten zuan; poliña uraxen! bañan lepotik txintxilik ibiltzeko gogua Ignazio A. Kaputxinoari zor izan zion.

Sermoiegile trebe-bizkoña zen Aita Ignazio: afekegin zun itzal-di batian Martin Joxek *Kutun urdiña* zer den ikasi zun. Beralaxen lepotik jafi naian prailiari bidera etofi eta: Aizu, Aita, *Kutun urdiña* emango al didazu? Bai, maitia, erantzun zion Praile gozuak; maite ori, biar atsaldeko iruetan elizara etofi zaitez eta jafiko dizut.

Mutiko txintxoak beste askoen artean Prailiaren eskutik *Kutun urdiña* artu zun...

Amabi urteko muti koskoña iltzeko zorian arkitzen zan. Bere ama atsekabez lertzen, nega zariola, ondoan zegon. Eriotzaren aztarnak semetxoaren aurpegian ikusi zituanian, malko beroakin bustiaz musuka azi zitzaion ama gaxoa.

Azkenekotan mutiltxoak, egiñalian zeuzkan indafak bildurikan, amari esan zion: «Amatxo negafik etzazula egiñ. goratu ta bedeinka zazu Jaungoikoa, batayo eguneko efugabetasuna oraintxe arte gorde detalako.



Ama Birjiñak zerura narama...» eta kutun urdiña dar-dafian zarabilz-kion eskuekin artuta itz auek azken-azkenian esan zitun:

«*Kutun urdiña* emen daukat... Maria... Maria...» eta Kutun urdiña arpe-gira eramanaz Kutun urdiñak *Martin Joxen* azken asnasia estali zun.

**

Zuek ere gaztetxo maitiak, *Martin Joxek* bezela eriotzaraño batayo egunian artutako efugabatasuna gorde nai dezute?... *Kutun urdiñaren* jabe egin zaitezte.

Kutun urdiña, aldarean apaizaren eskutik artua berekin deramanak edo ordez domiño edo medala eramaten duanak alde batetik Jesusen irudia eta bestetik Ama Birjiñarena dakañela Barkamen askoz gañera eskubide eder aundiak dauzka.

Aski du, non-nai arkitu aŕen, sei Aita gure. Agur Maria eta Gloria esatia Efomako eliz-nagusietan, Portziunkula'ko elizan, Jerusalemgo elizetan eta Compostelako Santiago-elizan irabazi leizken Barkamen osoak irabazteko eta ezta gero belauniko sei Aita gure oyek esan beafik, eztare Jauna artu beafik Barkamen oyek irabazteko. (Inoc. XI. 1678'ko Epailaren 7'an... S. C. I. 1856'ko epailaren 31'an erabakia eta Pio IX ongi artua.)

Jauna artuaz irabazi ditezken Barkamen osoak beŕiz asko dira. Ikasi:

1) Kutuna artzen den egunian. 2) Ileroko lendabiziko igandian. 3) Nekezko igandian eta nekezko ostiralian. 4) Asteazken, ostegun eta ostiral Santuan. 5) Iru Pazkoetan, Salvatore egunian, Irutasun Santuaren egunean, Lorilaren 3'an eta Agofaren 14'an. 7) Ama Birjiñaren jai nagusietan. 8) Dagonilaren 2'an. 9) Domini-Santu egunian, Jose Santuaren, Migel Aingeruaren, Aingeru Zaitzalien, Juan Batayatzalearen, Pedro eta Paulo Santuen, Agustin Santuaren eta Teresa Santuaren egunetan. 10) Dagonilaren 7'an, Azaroaren 10'an, Epailaren 24'an, Garagaŕilaren 17'an, Abenduaren 14'an, Joŕailaren 12'an. 10) Eriotzako orduan eta... beste aldi batzuetan..

Ikasi gazte-gaztetatik Ama Birjiña'ren mendean zeren burua jartzen Martin Joxen eriotz edeŕa bezin edeŕa zuen eriotzaere izateko. Ala nai dizue...

Oyartzunak

Sangozatik.



Guziok anai gera

Jaungoikoa maitasuna da ta maitasuna dalako, nai du bere Elizan bizi geran guziok anai izatea. Aŕitzekoa da maitasun onen indaŕa ofenbeste eŕi, oitura ta izkera elkarganatzeko.

Txekoslovakia'n, Presburgo deritzaion urian Eukaristi Batzaŕa izan da.

Jesus'ek bere inguruan 250.000 katoliko bildu ditu; gizonak egin ezin dutena, Elizak egin du. Txekoslovakia, Hungria ta Alemania'ko semeak, bein ere ezer-
txo izan ez balute bezala, anaiak bezala bizi izan dira egun oyetan. Guziak ba-
tean joan dira Jauna afitzera ta gero guziak batean lagundu diote kalez-kale, be-
ren afitze pake ta maitasuna erakutsiaz.

Ebanjelio ondoan iru efi oyetako semeai iru itzaldi egin zitzaizkien, ba-



Ezkeretik eskubira: Zuza'r Zakarias, Adoain'go Apaiz J.; Blanko'ar Anjel, Balleko Alkatea J.;
Berriain'dar Joakin M.^a Kapuxinoen Aita Probitziala G. Ag.; Burgos'ko Chantre, Zuza'r Za-
karias J. G. Ag., ta Adoain'go seme dan Aita Esteban, Alsasu'ko Irakaslea. Azken aurrekoa ez
besteak eta goien dagon Lizar'dar Gumerindo Aitak izan zituzten itzaldiak. "Uraul-goiti" ko
Apaiz eta udal-gizonak dira besteak.

koitzari bere izkeran; gero meza ondoan iru efitakoak kantu bera abestu zuten,
baña bakoitzak bere izkeran, Batzar egunetan apaizai ta ez apaizai Eukaristiaz
itz-egin zaye.

Aurak biarko gizonak

Oregatik sayatzen dira ofenbeste gaiztoak aufen biotzetan azi txafa erei-
ten ikastetxetan. Orain arte Belgika'n erdiko malakoak deitzen dituzten ikaste-

txe geyenak Elizaren eskuetan daude. Gotzaiak jafita dauzkaten ikastetxetara 24.000 ikasle biltzen dira, Jesus'en Lagundikoak dauzkatenetara 5.070 biltzen dira ta Freres esaten dituztenak 2.578 badituzte; guziak 31.648 dira; gobernuak dauzkan maña ortako ikastetxetan 10.000 bakarik biltzen dira.

«Derniere Heure» izena dun izpafingi gaiztoa afitu ta ikaratu egin da, ofen-beste gaztetxo Elizaren eskuetan ikusi dituanean,

Eskozi. 'ko katolikoak

Bourne Kardenala Eskoziako Oban efian izan da. Emen katolikoak oso gutxi dira ta protestanteak dira bertako nagusiak.

Monja Karmeldafen etxe befi bat itxi ta bedeinkatzera joan da Kardenala. Orain arte amazapi etxe befi egin dituzte monja berak Ingletera'n, Bourne Kardenala Gotzai egin zutenetik. Katolikoakin protestante asko ibili ziran konbentua ikusten. itxi baño lenago ta gero elizan ere izan ziran Kardenalaren itzaldia entzuten.

Emendik Kardenala Karfin'era joan zan: «Eskoziako Lourdes» deitzen diote efi oni. Emen bedeinkatu zuen minero katolikoak, al duien bezela, jaso duten elizatxoak. Txikia izan afen, jende asko biltzen du; uzta bertan, 22'g. egunean baziran 40.000.

Elkartasun edera

Jakiña da nola dauden Londres'en elkaftuta antzoki edo teatrotan lan egiten duten gizon ta emakume katolikoak. Elkaftasun ori jafi zuen Miss St. Barbe'k aurtengo batzafan esan du joan dan urtean 888 lagun zirala ta beste 70 befi sartu dirala aurtan. Elkaftasun oni laguntzen dioten apaizak 759 dira ta urtean 300 meza esaten dituzte elkaftasunarentzat; lagun bat iltzen danean, 90 meza ateratzen dira berari laguntzeko. Urtero izaten dituzte gañera beren ejerizioak.

Eregeen eregea goratzeko

Mejiko'n egin dan Eukaristi-Batzafak, ango katolikoek biotzak poztu ditu ta beren sinismena piztu ta berotu du. Jaungoikoak Batzaf au bedeinkatu zezan, uriko auf guziak peregrinazioa egin zuten Tepeya'ko elizara; au bera egin zan Mejiko'ko efi guzietan. Uriko eliz guzietan Jaunaftze asko izan dira ta Batzafak iraun dun egunetan Jauna argirian egon da Katedralea. Igandean itxi zan Batzafak, Guadalupe'ko Ama Birjiñari egin zitzaion peregrinazioaz. Langileak Jaunaren afean igaro zuten larunbateko gaua.

IL-BERRIAK

Gaur asten degu «Zeruko Argia'n» sail befi au, gure arpidedunak beren eriotz ondoren, izan dezaten euskaldun onen otoitz bana, gureaz landara.

Eta sail au ideki bear degu berogeita amar urtez bedere Tolosa'ko Apaiz-Aita ta Apaiz-Buru izan zan Orkaiztegi ta Itxaso-Asu'tar Patrizio Antonio zanaren eta Zubimendi'tar Graziano-jauna zanarenekin.

*Betiko atsedena eman zaiezu Jauna eta betiko argiak argitu bitza.
Pakean beude. Amen. (Otoitz indultjenti duna).*